



Maxim SHIPENKOV | AFP

IKUSMIRA

PUTINEN ETA NETANYAHUREN EZTEI BIDAIA INTERESATUA

Ekialde Hurbila Udaberri Arabiarren negutegian hankaz gora dagoen honetan ez da harrigarria Vladimir Putin Errusiako presidentek eta Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak agertzen duten sintonia. Horren erakusle, aste honetan bertan hirugarren aldiz bisatu du Putin Kremlanean Netanyahuk. Hala

ere, ez da atzo goizekoa bi gobernuen arteko harreman ona. Sobietar Batasunaren aldeko jarrera erabakigarria izan zen hasieratik Estatu sionistaren sorkuntzan. Egun, Netanyahuk Obamaren AEBekin dituen tirabirak direla eta, eztei bidaia interesatua bizi dute Errusia «zahar-berriak» eta «Israel» eta «Juda» erreinu ahistorikoen ondorengoa dela dioten Israelek. Horrela, bada, Siriako gerran bata besteari traba egingo ez diotela berrestez gain, Putinekin bat etorri da Netanyahu Al-Assaden etorkizuna auziaren muina ez dela azaltzean. Agian horrexegatik itzuli dio Errusiak Israeli 1982an Libano inbaditu zuenean galdu zuen tankea -siriarren esku amaitu zuen-. Gerra garaikurrak ezkontza opari. Dabid Lazkanoiturburu